

IV. Plana Gobernu Irekia

ESPAINIA

2020-2024

Hiritarrentzako bertsioa



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE HACIENDA
Y FUNCIÓN PÚBLICA

Europar Batasunak Next GenerationEU bitartez finantzatua. Halere, adierazitako ikuspegiak eta iritziak egilearenak bakarrik dira, eta ez dute nahitaez islatzen Europar Batasunarenak ezta Europako Batzordearenak ere. Ez Europar Batasuna ez Europako Batzordea ez dira haien erantzuleak.

Editatu du: Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa. Idazkaritza
Tekniko Orokorra. Argitalpenen zentroa.

NIPO (sareko edizioa): 277-21-067-2

1. Zer da Gobernu Irekia?	5
2. Gobernu Irekirako Aliantza.....	6
3. Gobernu Irekia Espainian	7
3.1. Gobernu Irekiaren Planak	7
3.2. Gobernu Irekiaren Foroa	9
4. Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024	10
4.1. IV. Planaren helburu orokorrak	10
4.2. Nola egin zen IV. Plana.	10
4.3. IV. Planaren ezaugarriak	10
4.4. IV. Planaren edukiak: konpromisoak eta ekimenak.....	12
4.4.1. 1. ardatza. Gardentasunean eta kontuak ematean sakontzeko ekimenak.....	13
4.4.2. 2. ardatza. Hiritarren partaidetza sustatzeko ekimenak.....	14
4.4.3. 3. ardatza: Integritate publikoa bermatzeko ekimenak	15
4.4.4. 4. ardatza: Sentsibilizazio eta prestakuntzako ekimenak	16
4.4.5. Autonomia Erdidegoen eta Hirien eta FEMPren arteko konpromisoak.....	18



1. Zer da Gobernu Irekia?

Gobernu Irekia gardentasun maximoa eta kontuak ematea, hiritarren partaidetza, lankidetzazko soziala eta integritate publikoa sustatzen duen herri gobernantza modua da, inor ere atzean utzi gabe bere eskubide demokratikoen erabileran.

Gobernu Irekiaren xedea gure demokraziaren kalitatea hobetzea eta haren erakunde publikoetan pertsonen konfiantza sendotzea da.

Espanian, Konstituzioak eta legeek informazio publikoa izateko eta partaidetza eskubidea onartzen dizkiete pertsona guztiei. Halaber, Administrazioa behartzen dute legearen eta zuzenbidearen arabera jardutera, zerbitzua interes orokorren arabera objektibotasunez ematera eta funtzio publikoa burutzean partzialtasunik gabe lan egitera. Horretarako, Gobernu Irekiak sustatzen dituen balioak guztiz koherenteak dira gure Konstituzioko araudiarekin.

2. Gobernu Irekirako Aliantza

Gobernu Irekirako Aliantza (OGP ingelesezko siglen-gatik), 2011n gobernu eta administrazio guztiek gardentasunez jarduteko eta kontu emateko, gai publikoetan hiritarren partaidetza, lankidetzeta eta integritate publikoa sustatzeko sortu zen nazioarteko elkarte bat da.


Gaur egun, 77 herrialdek eta gero eta eskualdeko eta tokiko gobernu gehiagok osatzen dute Aliantza, zeinak bi mila milioi pertsona baino gehiago ordezkatzaren dituzten, sozietate zibilaren milaka erakunderekin batera.

Espainia Aliantzaren kide da Gobernu Irekirako hura sortu zenetik eta, ondoren, Euskadiko, Kataluniako eta Aragoiko Erkidegoak ere sartu dira, Madrilgo Udalarekin batera.

Gobernu guztiek, Aliantzaren sartzen direnean, Gobernu Irekiko Adierazpena sinatzen dute, zeinaren bitartez gobernu ireki, garden, parte-hartzaile eta arduratsu baten printzipioak defendatzeko konpromisoa bere gain hartzen duten.

Horretarako, Gobernu Irekiko Planak garatu behar dituzte, non konpromisoak, ekimenak eta jarduketa zehatzak bilduko diren, Administrazioen eta haien arduradun publikoen gardentasuna, hiritarren partaidetza, integritatea eta inklusibitatea hobetzeko.

Gobernu Irekiko Plan horiek hiritarren partaidetzarekin eta gizarte zibilaren erakundeekin elkarlanean. Aliantzaren Kanpoko Berrikuspen Mekanismoak ebatzuko du Plan honen betetze maila, zeina Gobernu Irekian nazioarteko adituek osatzen duten.



The screenshot shows the website for the Open Government Partnership (OGP). The main heading is "Sobre Open Government Partnership". Below it, a sub-heading reads: "Bienvenido a la Open Government Partnership, una organización de reformadores dentro y fuera del gobierno que trabaja para transformar la forma en que el gobierno sirve a sus ciudadanos." The website features a navigation menu with items like "SOBRE NOSOTROS", "PROCESO", "ÁREAS DE POLÍTICA", "MIEMBROS", "APRENDIZAJE", and "CAMPAÑAS". A large image of diverse people is in the background. At the bottom, there is a section with the OGP logo and text: "En 2011, los líderes gubernamentales y los defensores de la sociedad civil se unieron para crear una asociación única, una que combine estas poderosas fuerzas para promover una gobernanza transparente, participativa, inclusiva y responsable." Below this, it states: "Setenta y ocho países y setenta y seis gobiernos locales, que representan a más de dos mil millones de personas, junto con miles de organizaciones de la sociedad civil son miembros de la Open Government Partnership (OGP)". There are also links for "Misión y estrategia", "Enfoque", and "Proceso OGP".

3. Gobernu Irekia Spainian

1.1. Gobernu Irekiaren Planak

2011az geroztik Gobernu Irekiko hiru plan garatu ditugu. Egun, Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024 burutzen ari gara.

Gobernu Irekiko planek Administrazioa hiritarrei hurbiltzeko eta kalitate demokratikoa hobetzeko aurrerapen handiak ekarri dizkigu.

Hortaz, hurrengo lorpenak zor dizkiogu **Gobernu Irekiaren I. Planari** (2012-2014):

- Gardentasuneko, informaziorako sarbideko eta gobernu oneko Legea onartu genuen 2013an. Lege honek agintari publikoak hainbat motako informazioa, kontratuak, diru-laguntzak, planak, aurrekontuak eta abar hedatzera behartzen ditu. Horri esker, pertsonak Administrazioari galdetu ahal izango diogu gardentasun atarietan bilatzen dugun informazioa aurkitzen ez dugunean.
- Garapenerako Espainiako Lankidetzaren emaitzen kontuak hedatu genituen.
- Hiritarren segurtasunerako lankidetzeta eta partaidetzeta sistema bat ezarri genuen.
- Kriminalitateari buruzko estatistikak hobetu eta areagotu genituen.
- Gaixoen osasuneko informazioa atzitzea errazten dugu.

Gobernu Irekiko II. Planak (2014-2016) hiritarrentzat hobekuntzak ere ekarri zituen:

- Estatuko Administrazio Orokorraren Gardentasuneko Ataria jarri genuen martxan. Ondoren, Herri Administrazioek haien gardentasun atariak joan dira sortzen.
- Espainiako Fitxategien Gunearen datuak atzitzea, trukitzea eta babestea errazten dugu (PARES), ondare historiko dokumentala hedatzeko plataforma nagusia.
- Hezkuntzako materialetara doako sarbidea errazten dugu, Procomún plataformaren bitartez, eta onlineko doako ikastaroak sustatzen ditugu.

- Osasun datuen nazioko Bankua garatu genuen linean.
- Sektore Publikoaren informazioa Berrera-biltzeko sistema (RISP) areagotu genuen. Horrek, produktu, zerbitzu eta merkatu berriak garatzeaz gain, administrazioaren gardentasuna areagotu zuen.
- Justizia Administrazioiko Ataria hobetu eta egokitu genuen.
- Diru-laguntzak Argitaratzeko Nazioko Sistema sendotu genuen.
- Droga-menpekotasuneko Espainiako Bartzordea sortu genuen, gizarte ordezkariekin.

Gobernu Irekiko III. Planak (2017-2019) hurrengo lau arloetan ere ekarri zituen hobekuntzak:

Gardentasunean eta kontuak ematean:

- Ziurtagiri digitala edo sinadura elektronikoen baldintza kendu genuen informazio publikoan sartzeko eskubidea eskatzeko.
- % 42tik gora areagotu genuen argitaratutako datu irekien katalogoa.
- Estatistika judizialak hobetu genituen.
- Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak informazio zerbitzu berrien eskura jarri zuen aurrekontuen, egikaritzea eta likidazioen inguruko informazioa Herri administrazio guztientzat.
- Higiezin datuen kalitatea areagotzea lortu genuen katastroaren koordinazioaren eta jabetza Erregistroaren bitartez.
- Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko informazioa atzitzeko eta hedatzeko hobekuntzak egin genituen. Hortaz, gizartearen kontzientzia pizteaz gain, eragile publikoen eta pribatuen lana ere erraztu dugu, gizartearen gaitz horren prebentziorako eta hura errotoz akabatzeke, besteak beste, biktimei lagunduz.

Partaidetzaren hobetzearen eremuan:

- Partaidetzaren Behatokia jarri genuen martxan, hainbat arlotan hiritarren partaidetza maila ebaluatzeko - legeak eta beste arau batzuk; plan eta programa publikoak; kontseilu aholku-emaileak egiteko, baliabide elektronikoak eta sare sozialak- eta partaidetza hobetzeko gomendioak ematen ditugu.
- Estatuko Administrazio Orokorrak web gune partehartzaile bat sortu zuen. Hemen, hiritarrek eta gizarte zibilak haren iritzia eta proposamenak ekar ditzakete, denbora errealean Gobernu Irekiaren planen konpromisoak betetzeko maila eza-gutzeaz gain.
- Gobernu Irekiko Foroa sortu genuen, eta aurrerago emango ditugu haren xedepena.

Lankidetzaren arloan, hurrengo aurrerapenak nabarmentzen ditugu:

- Gobernu Irekiko Batzorde Sektoriala sortu genuen: gure Administrazioen arteko etengabeko eztabaidagunea, ekimenak partekatzeke Gobernu Irekiaren eta haren eboluzioaren inguruan garatuak.
- Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (FEMP) Gardentasunerako eta Partaidetzarako Tokiko Entitateen Sarea sustatu zuen. Xedea berrikuntza sustatzea, esperientzien hartu-emanak egitea eta etengabe tokiko gobernuen eta hiritarren arteko harremana hobetzea da, Gobernu Irekiaren printzipioei jarraiki.

Azkenik, III. Planak **prestakuntzan eta sentsibilizazio sozialean** ere gauza garrantzitsuak lortu zituen. Horien artean, hurrengoak:

- *Gobernu Irekiari buruzko Gida Didaktikoak* egin eta banatu genituen, hezkuntzakoak, gaitasun sozialen eta zibikoaren garapena sustatzeko ikasleen artean.
- 2018an, Herri Administrazio guztiek Administrazio Irekiaren Astea ospatu genuen, hiritarrei hurbildu eta informazioa atzitzeko eta partaidetzako sarbide eskubideak erabiltzea sustatzeko. Espainia izan da

2018an mundu mailan ekitaldi gehien antolatatu zuen herrialdea. Gauza bera gertatu zen 2021 eta 2022an, non Administrazio Irekiaren Astea ospatu genuen berriro.

- Herri Administrazioentzat lan egiten duten langileentzat ikastaro ugari egiten ditugu, gobernu Irekiaren kultura sustatze aldera.

Hau da, Espainiako Administrazioak bere konpromisoak betetzen ditu: III. Planaren jardueren % 87 egin zen, Aliantzako herrialdeek baino 20 puntu gehiagorekin. Hala dio 2017-2019ko Gobernu Irekiko III. Plana barneratzeko Gobernu Irekiaren Aliantza Berrikusteko Mekanismo Independentek egin zuen txostenak. Txosten honek dio III. Planaren konpromisoen % 40k aurrerapauso handiak eman zituztela gure Administrazioa irekitzeko orduan; aldiz, Aliantzako herrialdeen multzoak % 19k bakarrik eman zituzten aurrerapauso adierazgarriak.



1.2. Gobernu Irekiaren Foroa

Gobernu Irekiaren III. Planari zor dizkiogun aurrerapauso nagusien artean dugu, 2018an **Gobernu Irekiaren Foroa** sortzea. Foro hau gardentasuna, partaidetza eta lankidetzaren sustatzeko eta Gobernu Irekiaren Planak egiten eta ebaluatzen parte hartzeko gunea da. 64 ordezkari osatzen dute foroa: 32 Herri Administrazioak (AGE, Autonomia Erkidegoak eta Tokiko Entitateak) eta gizarte zibileko 32 erakundek.

Foroaren buruan Funtzio Publikoko Estatuko Idazkariaren titularra dago, eta urtean behin elkartzen dira, gutxienez. Haren bilkuretan, esperientzia eta aholkularitza ekartzen duten pertsonak ere har dezakete parte.

Lanak bultzatzeko, Batzorde Iraunkor bat eta bost lantalde daude, Herri Administrazioen eta Gizarte Zibilaren beste bezainbeste ordezkari osatua.

Lantaldeetan, lortzen doazen emaitzen kontu ematen dituzte konpromisoen arduradunek.

Egun, bost lantalde ditugu:

1. Gardentasuna eta kontuak ematearen Taldea
2. Hiritarren partaidetzaren Taldea
3. Integritate Publikoaren Taldea
4. Prestakuntza eta Sentsibilizazioko Taldea
5. Komunikazioko eta Lankidetzako Taldea



Zure iritzia garrantzitsua da

4. Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024

Gobernu Irekiko Foroaren Osoko Bilkurak Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024 onartu zuen 2020ko urriaren 29an. Planak 20 konpromiso, 112 ekimen eta 543 jarduera biltzen ditu. Hurrengo orrietan, haren helburuak, nola egin zen eta haren konpromisoak eta ekimenak zertan datzen azalduko dugu.

5.1. IV. Planaren helburu orokorrak

Hauek dira IV. Planaren helburu orokorrak:

1. Herri Administrazioaren gardentasunean, irekitako datuetan eta kontuak ematean sakontzea.
2. Hiritarren kudeaketa publikoan partaidetzaren kalitatea sustatzea, sendotzea eta hobetzea.
3. Herri erakundeen balio etikoak eta integritatea sendotzea.
4. Gizartea eta Herri Administrazioarentzat lan egiten dutenak Gobernu Irekiaren balioren inguruan sentsibilizatzea.

Lau helburu horiez gain, IV. Planak hurrengo ere lortu nahi du:

- NBEk Agenda 2030ean ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuak betetzen laguntzea. Are zehatzago, 16. helburua lortzea, hau da, bidezko gizarteak, baketsuak eta pertsona guztiak eragozpenik gabe parte hartzea ahalbidetzen dutenak sustatzea.
- Txirotasun egoeran edo egoera zaurgarrian edo bazterketa egoeran bizi diren pertsonen gizarte inklusioa, berdintasuna eta irisgarritasun unibertsala sustatzea.

5.6. Nola egin zen IV. Plana

Gobernu Irekiaren IV. Plana pertsona guztien artean eta pertsona guztientzat egin da. Hiritarren partaidetza zuzenaren, gizarte zibileko erakundeen ekarpenen eta Administrazio guztien lankidetzaren ondorio da. Hurrengo urratsak eman ziren Plana prestatzeko eta onesteko:

- 2019ko otsailaren 14an onartu zuen Foroak IV. Plana egiteko *Esparru Dokumentua*. Hartan, Planaren helburu orokorrak zehaztu ziren; hiritarren partaidetza prozesuak izan beharko luketen ezaugarriak haiek nola diseinatu jakiteko; eta zein irizpide erabiliko lirartekeen, hiritarren ekimenak eta proposamenak baloratzeko.
- Komunikazio kanpaina bat egin zen jendea Gardentasunaren eta Twitterren bitartez parte hartzera gonbidatzeko (@transparencia_e eta @060gobes).
- Gobernantza Publikoko Zuzendaritza Nagusiak hiritarrei galdekizun bat egin zien alde zuzenetik, eta hiritarren zein gizarte zibileko erakundeen 130 proposamen jasoz zituen.
- 2020ko ekainean eta irailean, *Kokreazioko eztabaida-tailerak* antolatu ziren. Haietan, Administrazioek eta sozietate zibilak elkarrekin erabaki zuten zein ziren IV. Planaren konpromiso bihurtzeko lehentasuna zuten hiritarren proposamenak.
- Eztabaida-tailer horien ondorioekin, Gobernantza Publikoko Zuzendaritza Nagusiak IV. Planaren *Zirriborroa* idatzi zuen - Gardentasun Atarian argitaratua-.
- Zirriborrora ekarpenak gehitu ondoren, beste *Galdeketa Publiko* bat egin zen, 2020ko irailaren eta urriaren artean. 2020ko urriaren 29ko Foroaren Osoko Bilkuran onartu zen Gobernuaren IV. Plana.

GOBERNU IREKIAREN IV. PLANAREN DISEINUA

Gizarte zibilarekin batera sortzeko prozesua

1. LAN-PLANA PRESTATZEA

Eztabaida-prozesu baten ondoren, Batzorde Sektorialak eta Gobernu Irekiaren Foroak honako hauek onartu dituzte:

- **Ibilbide-orria**
- **Esparru-dokumentua:**
 - Planaren helburuak.
 - Proposamenak baloratzeko irizpideak.



3. AURRETIAZKO KONTSULTA PROZESUA

18/03 - 10/04/2019: **gizarte zibileko erakundeek eta herritarrek**, oro har, Planerako **proposamenak egiten** dituzte, Gardentasunaren Atariko formulario baten bidez.



5. ZIRRIBORROA EGITEA ETA KONTSULTA PUBLIKOA EGITEA:

Gobernantza Publikoko Zuzendaritza Nagusiak zirriborro bat egin eta Gardentasunaren Atarian argitaratuko du, **gizarte zibileko erakundeek eta herritarrek** oharrak egin ditzaten (2020/09/28 - 2020/10/16). Ondoren, behin betiko zirriborroa egiten da.



2. SENTSIBILIZAZIO KANPAINA ETA ARGITALPENA

Planaren diseinu prozesuari buruzko informazioa argitaratzen da eta **gizarte zibila parte hartzera animatzen** da:

- Webgunea: transparencia.gob.es
- Twitter: [@transparencia_e](https://twitter.com/transparencia_e) / [@060gobes](https://twitter.com/060gobes)
- Aurrez aurre: Foroaren bilerak.



4. HERRITARREN PROPOSAMENEN ETA BATERAKO SORKUNTZAKO TAILERREN AZTERKETA

Administrazio Publikoek esparru-dokumentuan oinarrituta aztertzen dituzte proposamenak, eta **baterako sorkuntzako tailerrak** egiten dira gizarte zibileko ordezkariekin batera (2020ko ekaina/iraila).



6. GOBERNU IREKIAREN FOROAREN ERABAKIA:

Zirriborroa **Gobernu Irekiaren Foroaren** eztabaidarako eta azken akordiorako aurkeztu da:
28/10/2020: Batzorde Iraunkorren bilera.
29/10/2020: Osoko Bilkuraren bilera.

5.7. Planaren ezaugarriak

Gobernu Irekiko IV. Planak hurrengo hobekuntzak eta berrikuntzak ditu aurrekoekiko:

- Bi urterako izan ordez, **lau urterako** Plana da (**2020-2024**). Iraupen luzeago horrek asmo handiagoko konpromisoak ezartzea ahalbidetzen du eta inpaktu sozial handiagoko emaitzak izatea bermatzen du.
- **Nazio mailako** plana da, lehenengo aldiz parte hartu nahi izan baitute Espainiako Administrazio guztiek, eta herri administrazioek hiritarrei eraginkortasun handiagoz laguntzeko irekiera, gardentasun, partaidetza eta integritate politikekin duten konpromiso sendoa islatzen baitu. Hortaz, Espainia erreferente bihurtu da oso dezentralizazio maila handia duten edo egitura federala duten beste Estatuentzat.
- **Asmo handieneko** plana da, inpaktu eraldatzaile argiduna, eta 10 konpromiso eta 113 ekimen hartzen dituena herri kudeaketa eraldatzeko eta eskubide demokratikoak gauzatzea sendotzeko.

- **Pertsona guztien eta pertsona guztientzako plana da.** IV. Plana hiritarren eskaren eta Gobernu Irekiko Foroaren bitartez Herri Administrazioen gizarte zibilarekin lankidetzaren emaitza da.

5.8. IV. Planaren edukiak: konpromisoak eta ekimenak

Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Planak 2020-2024 bost ardatz ditu:

1. Gardentasuna eta kontuak ematea
2. Parte hartzea
3. Integritatea
4. Sentsibilizazioa eta prestakuntza.
5. Erkidegoko eta tokiko ekimenak (FEMP).

Autonomia Erkidegoen, Autonomia Hirien (Ceuta eta Melilla) eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren 53 ekimen sartu dira.

Planak 10 konpromiso eta 113 ekimen biltzen ditu.

1. GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA	
1	ARAUDIAREN ERREFORMA
2	GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA HOBETZEKO ETA SENDOTZEKO PLANA
2. PARTE HARTZEA	
3	PARTE HARTZEA HOBETZEKO PLANA
4	ARAUDIAREN AZTARNA
3. INTEGRITATEA	
5	INTEGRITATE PUBLIKOKO PREBENTZIO SISTEMAK
6	SALATZAILEEN BABESA
4. SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA	
7	GOBERNU IREKIAN HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA
8	KOMUNIKAZIOA GOBERNU IREKIAREN INGURUAN
9	GOBERNU IREKIAREN INGURUKO BEHATOKIA
KONPROMISOA ERKIDEGOKO ETA TOKIKO EREMUETAN	
10	AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA HIRIEN ETA FEMPAREN EKIMENA

1.1.1. 1. ardatza. Gardentasunean eta kontuak ematean sakontzeko ekimenak.

- > **1. konpromisoa.** *Gardentasunaren arau esparruen berritzea.* Hiru ekimen hartzen ditu konpromiso honek:
 - Gardentasuneko, informazio publikora iristeko eta gobernu oneko 19/2013 legea garatzen duen Araudia onartzea.
 - Espainiak Europako Kontseiluaren Dokumentu Publikoen Sarbideari buruzko Hitzarmena berrestea.
 - Gardentasuneko, informazio publikora iristeko eta gobernu oneko Legea aldatzea nazioko zein nazioarteko testuingurura egokitzeko.

Ekimen horiekin, Herri Administrazioak gardenagoak izango dira eta pertsonak errazago sartu ahal izango dira informazio publikoan.

- > **2. konpromisoa.** *Gardentasuna eta kontuak ematea hobetzeko eta sendotzeko plana.* Hauek dira konpromiso hau betetzea ahalbidetuko duten ekimenak:
 - Gardentasuneko legearen mendeko entitate publikoen eta pribatuen ebaluazio eta ziurtatze sistemak martxan jartzea. Gardentasuneko eta Gobernu Oneko Batzordearen eta Autonomia Erkidegoen Gardentasuneko Mandatarien proiektu bat da.



- Gardentasunaren Ataria hobetzea eskuragarri dagoen informazioa areagotzeko eta kontuak emateko plan publikoak betetzearen inguruan.
- Datuak eta informazio publikoa zabaltzea sustatzea, 2019/1024 Europar Zuzentaraua berretsiz, sektore publikoko datuak ireki eta informazioa berrerabiltzeari buruzkoa.
- Azkenik, konpromiso honetan arlo **sektorialetan praktika egokiak** ere sartzen dira, pertsonak kontratu publikoen, diru-laguntzen, aurrekontuen eta lehentasunen inguruko edo tokiko entitateen kudeaketari buruzko informazio gehiago izan dezaten. Merkataritza Erregistroko datuak atzitzea ere erraztuko da.

GARDENTASUNERAKO ETA KONTUAK EMATEKO KONPROMISOAK

Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024

Arau-esparruaren erreforma	Gardentasuna eta kontuak ematea hobetzeko eta sendotzeko plana
<div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <div style="text-align: center;">  <p>Gardentasun legearen erreforma</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>Dokumentuak eskuratzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena berrestea</p> </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 10px;"> <div style="text-align: center;">  <p>Gardentasun legearen araudia onartzea</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>Gardentasuneko eta Gobernu Oneko Batzordearen eta Autonomia Erkidegoen Gardentasuneko Mandatarien proiektu bat da.</p> </div> </div>	<div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <div style="text-align: center;">  <p>Gardentasunaren Ataria hobetzea</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>Jardunbide egokiak: - Aurrekontuaren esparru ekonomikoak - Merkataritza Erregistroa - Funtzionarioen hautaketa prestakuntza</p> </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 10px;"> <div style="text-align: center;">  <p>Gardentasuna egiaztatzeko sistema</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>Datu irekiak eta informazioa berrerabiltzea</p> </div> </div>



1.1.2. 2. ardatza. Hiritarren partaidetza sustatzeko ekimenak

- > **3. konpromisoa.** *Parte hartzea hobetzeko plana.* IV. Planak bost ekimen biltzen ditu gai publikoetan guztion partaidetza bultzatu, sendotu eta hobetzeko:
 - Gardentasunaren Webgunean Parte hartzeko Plataforma sortzea, hiritarrei galderak egiteko.
 - Gobernu Irekiaren Foroaren funtzionamendua hobetzea.
 - Hiritarren partaidetza hobetzea plan eta programa publikoetan, organo aholku-emaleetan eta baliabide elektronikoko eta sare sozialen bitartez.

- Hiritarren partaidetzarako Berrikuntza Laborategiak martxan jartzea, eta iritziak eta hiritarren jakintza barneratzea gai publikoen kudeaketan.
- Langile publikoen parte-hartzearen aldeko kultura sortzea prestakuntza ekintzen bitartez.

- > **4. konpromisoa.** *Araudiaren aztarna.*
 - Sistema honi esker, edonork ezagutu dezake hasieratik onartzen diren arte arauak egiteko prozedura: dokumentuak, izapidetzea, bertsioak, aldaketak eta onespena. Arauak egiteko prozesuan hiritarren partaidetza sustatu nahi da.

PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK

Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024

Parte-hartzea hobetzeko plana			Arau- aztarna
 <p>Gardentasunaren Atarian parte hartzeko plataforma</p>	 <p>Parte-hartzea ebaluatzea eta hobetzea: - Planak eta programak - Baliabide elektronikoak eta sare sozialak. - Kide anitzeko organoak</p>	 <p>Hobekuntzak Gobernu Irekiaren Foroan</p>	 <p>Parte-hartzearen arauak egiteko prozesuaren trazabilitatea</p>
 <p>Berrikuntza-laborategiak</p>	 <p>Sentsibilizazioa eta prestakuntza</p>		

1.1.3. 3. ardatza: Integritate publikoa bermatzeko ekimenak

- > **5. konpromisoa.** *Integritate publikoko prebentzio-sistemak.*
 - **Prebentzio sistemen diagnostia eta hobekuntza.** Lehenik eta behin, Administrazioan dagoeneko existitzen diren prebentzio-sistemak ebaluatuko dira, haiek hobetzeko eta hurrengo bitartez sendotzeko: arriskuen mapa, jokabide-kodeak, inkestak, kalitate sistema eta prestatutzaren hobekuntza.
 - Talde interesgarrien **nahitaezko erregistro bat arautzea.** Ekimen honek gardentasuna areagotuko du, hiritarrek talde interesgarriek erabaki publikoetan noraino parte hartzen duten ezagutu ahal izango baitute. Talde horiek ordezkariei jokabide-kode bat izango dute interes gatazkak saihesteko.
 - **Herri Administrazioentzat Lan egiten duten Langileen Bateriaezintasunen Legea** aldatzea. Ekimen honek interes gatazken prebentzio sistema berri osoago bat ezarriko du, enplegu publikoaren eremuan egungo Administrazioarekin bat datorrena.



- **Integritatea sendotzea eremu espezifikoetan: Adimen artifiziala.** Ekimen honen asmoa erakunde publikoen integritatea sendotzeko mekanismoak eta balio etikoak sendotzea da, eta hiritarren konfiantza areagotzea datuen eta Adimen Artifizialaren erabileran.
- > **6. konpromisoa.** *Salatzaileen babesa.*
 - Erakundeetan, arlo publikoak zein pribatuan, izandako arau-urraketek inguruko informazioa ematen duten pertsonak babestea bermatuko duten esparru juridiko berri bat onartzean datza ekimenak. Horretarako, Espainiako legerian berretsiko da 2019/1937 Europar Zuzentaraua, EBko eskubideak urratzearen berri ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.

INTEGRITATE-KONPROMISOAK

Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024

Integritate publikoko prebentzio-sistemak	Salatzaileen babesa
<div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small;">Nahitaezko interes-taldeek erregistroa arautzea</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small;">Integritatea adimen artifizialean</p> </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 10px;"> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small;">Integritate publikoko sistemen diagnostia eta hobekuntza</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small;">Langile publikoen bateraezintasunei buruzko legea aldatzea</p> </div> </div>	<div style="text-align: center; margin-bottom: 10px;">  </div> <p style="font-size: small;">Salatzaileak ustelkeriatik edo iruzurretik babesteko erregulazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kanal babestuak - Errepresaliak debekatzea





1.1.4. 4. ardatza: Sentsibilizazioko eta prestakuntzako ekimenak

- > **7. konpromisoa.** *Gobernu Irekian Prestakuntza eta Hezkuntza.*
 - **Hiritarrentzako eta adituentszako hezkuntza.** Ikasketa Politikoaren eta Konstituzionalen Zentroak Gobernu Irekiari buruzko doako prestakuntza emango du online herritarrentzat eta adituentszat.
 - **Nekazal emakumearen kompetentzietan prestakuntza eta ziurtagiria, arrakala digitalaren murrizketa.** Landa

munduan emakumearen konpetentzia edo gaitasun profesional digitalak sendotzeko eta indartzeko helburuarekin.

- **Gobernu Irekiari buruzko Gida bat egitea.** Hiritarren artean oinarritzko printzipioak hedatuko ditu, baina baita gobernu irekiarekin eta haren printzipioekin lotutako sektore profesionalen artean ere.
- **Gobernu Irekian prestakuntza langile publikoentzat.** Helburu nagusia garrantasunaren, kontuak ematearen, partaidetzaren eta lankidetzaren inguruan haren jokabideak sendotzea da.

GOBERNU IREKIAREN ETA PRESTAKUNTZA KONPROMISOAK



Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Plana 2020-2024

<p style="text-align: center; margin: 0;">Hezkuntza eta prestakuntza</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Hiritarrentzako eta adituentszako hezkuntza</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Nekazal emakumeen artean arrakala digitala murriztea</p> </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 10px;"> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Gobernu Irekiari buruzko Gida</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Langile publikoentzako prestakuntza</p> </div> </div>		<p style="text-align: center; margin: 0;">Komunikazio inklusiboa</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Komunikazio-plana</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Ikerketa eta eztabaida</p> </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 10px;"> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Nazioarteko sustapena</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Ekoizpen zientifikoa hedatzea</p> </div> </div>		<p style="text-align: center; margin: 0;">Gobernu Irekiaren Inguruko Behatokia</p> <div style="text-align: center; margin-top: 20px;">  <p style="font-size: small; margin: 0;">Behatokia sortzea eta jardunbide egokien jarraipena egitea</p> </div>
--	--	--	--	---

> **> 8. konpromisoa.** *Komunikazioa Gobernu Irekiaren inguruan.* Pertsona guztiek Gobernu irekiaren balioak ezagut ditzaten, eta pertsona horiek informazio publikorako eta parte-hartzerako eskubideak erabili ahal izan ditzaten berdintasun-baldintzetan eta inor baztertu gabe, konpromiso hori hurrengo ekimenen garapenean gauzatzen da:

- **Komunikazio Plan Inklusiboa Gobernu Irekiaren inguruan** gizartea Gobernu Irekiaren balioen eta aurrerakuntzen inguruan sentsibilizatzeko, eta Gardentasuneko ataria ezagutu eta erabil dezaten.
- **Gobernu Irekiaren sustapena nazioarteko eremuan.** Nazioarteko hainbat erakunderekin partaidetza eta lankidetzak ekintza batzuk aurreikusi dira, Gobernu Irekia sustatu eta hedatzeko.
- **Abangoardiako ikerketa eta eztabaida aurreratua** Gobernu Irekiaren inguruan. Ikerketa eta berrikuntza sustatu nahi da arlo horretan, komunitate akademiko eta zientifikoan.
- **Ekoizpen zientifikoaren hedapena.** Adituen arteko eztabaida sustatu eta ekoizpen zientifikoa hedatzea erraztu nahi da hainbat gaitan, politika berrien analisi eta garapenetik hasi eta Gardentasuna eta botere publikoen algoritmoen erabilerak barne, besteak beste.

> **9. konpromisoa.** *Gobernu Irekiaren Inguruko Behatokia*

Behatoki honen helburua da gardentasunari, integrazioari, parte-hartzeari eta ministerioak eta beste antolaketa publiko edo sozial batzuk dagoeneko gauzatzen ari diren jardunbide egokiei buruzko ekimenak zabaltea eta haien zain egotea.

Behatokiak 26 praktika egoki hartzen ditu, zeinak be-deratzi ministerio-sailetan garatuko diren:

1. Presidentzia, Gortekin harremanen eta Memoria Demokratikoko Ministerioa.
2. Osasuna.
3. Industria, Merkataritza eta Turismoa.
4. Ekonomia eta Eraldaketa Digitala.
5. Garraioak, Mugikortasuna eta Hiriko Agenda.
6. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
7. Zientzia eta Berrikuntza.
8. Unibertsitateak.
9. Eskubide Sozialak eta Agenda 2030.

Halaber, erakunde sozialen beste 2 praktika egoki biltzen dira.





AUTONOMIA- ETA TOKI-EREMUEN KONPROMISOAK



Espainiako Gobernu Irekairen IV. Plana 2020-2024

Autonomia-erkidegoak eta Hiri Autonomoak



Udalerriak eta probintziak



KONPROMISOA ERKIDEGOKO ETA TOKIKO EREMUETAN AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA HIRIEN ETA FEMPAREN EKIMENAK		
<p>EUSKO JAURLARITZA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Kontuak ematea aginte-planen bitartez 	<p>GENERALITAT DE CATALUNYA</p> <ul style="list-style-type: none"> > ParticipaCatunya.cat > Ustelkeriaren aurkako estrategiarako eta integritate publikoa sendotzeko partaidetza gunea > Genero berdintasuneko politikentzat datu irekien estrategia 	<p>XUNTA DE GALICIA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Politika eta zerbitzu publikoen kudeaketa eta ebaluaziorako instrumentuak > Erakundeen Integritateko esparrua > Hiritarren arretarako sistema integratua eta Gobernu irekia > Administrazio Digitala eta partaidetza > Gardentasuna, kontuak ematea eta Irisgarritasuna
<p>ANDALUZIAKO JUNTA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Gobernu Irekian eta Datuak Hedatzean Gaitzeko Plana langile publikoentzat > Datuak hedatzeko plana eta Big Data teknologiaren bulkada 	<p>ASTURIASKO PRINTZERRIKO GOBERNUA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Asturiasko printzerriko gardentasuneko Plan Estrategikoa 	<p>KANTABRIAKO GOBERNUA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Hiritarren Partaidetzako Legea
<p>ERRIOXAKO GOBERNUA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Kode etikoa > Gardentasuneko Atarirako eta Open data Atarirako sarbidea hobetzea > Informazio Publikoko Katalogoa eta berrerabil daitezkeen datuak 	<p>MURTZIAKO ESKUALDEA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Erakundeen Integritateko sistema > Haurren eta gazteen partaidetza sustatzea herri politiken diseinuan 	<p>GENERALITAT VALENCIANA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Datuak hedatzeko eta berrerabiltzeko Valentziako estrategia > Aurrekontu parte-hartzaileak > Erakundeen integritateko Valentziako sistema erakitzea
<p>ARAGOIKO GOBERNUA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Zerbitzuen diseinu kolaboratzaileko programa > Gobernu erraza > Openkids - Haurren partaidetza programa > Berrikuntza demokratikorako Laab gunea > Herri politikak elkarrekin sortzeko prozesuak 	<p>GAZTELA-MANTXAKO ERKIDEGOEN BATASUNA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Gardentasunean eta informaziorako sarbidean presaktakuntzako programa 	<p>KANARIETAKO GOBERNUA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Kanarietako herri administrazioen datu irekien zentralizazioa > Gobernu Irekiko Kanarietako Gobernu

KONPROMISOA ERKIDEGOKO ETA TOKIKO EREMUETAN		
AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA HIRIEN ETA FEMPAREN EKIMENAK		
<p>NAFARROAKO GOBERNUA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Open data Nafarroa > Haurren eta nerabeen parte hartzea 	<p>EXTREMADURAKO JUNTA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Sartzeko eskubidea erraztea eta erantzuteko epeak laburtzea. > Herri zerbitzuetan sartzeko esperientzia hobetzeko hiritarren laborategiak > Izapidetze elektronikoa barneratzea interes gatazken arloan obligazioak betetzeko > Herri zerbitzuen ebaluazioa eta hobekuntza > Gobernu irekiaren esparru arautzailearen sinplifikazioa 	<p>GOVERN ILLES BALEARS</p> <ul style="list-style-type: none"> > Hedapena eta prestakuntza gobernu irekiaren inguruan > Gardentasuneko Lege autonomikoa onartzea > Gardentasun arloan eta herri informazioa atzitzeko eskubidearen inguruan antolaketari buruzko Dekretua onartzea > Hiritarren partaidetzako plataforma teknologikoa > Hiritarren audientzia publikoa > Gobernuaren politiken ebaluagarritasuna adierazle bitartez > Hobekuntzak gardentasunaren gunean eta gobernu irekiaren gunean
<p>MADRILGO ERKIDEGOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Komunikazio argia eta gardentasuna 	<p>GAZTELA ETA LEONGO JUNTA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Informazio Publikoko Katalogoa > Gardentasuneko, informazioa atzitzea eta hura bererrerabiltzeko legea onestea > Araudiaren aztarna 	<p>ZEUTAKO HIRI AUTONOMOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Gardentasuneko Gunearen diseinu osoa > Gardentasunari eta gobernu irekiari buruzko araudia garatzea > Langile publikoen prestakuntza espezifiko > Gizarte zibila sentsibilizatzeko jardunaldia
<p>MELILLAKO HIRI AUTONOMOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Gazteek kudeaketa publikoan parte hartzeari buruzko prestakuntza eta informazioa 	<p>ESPAINIAKO UDALERRIEN ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Gardentasunaren eta hiritarren partaidetzaren aldeko tokiko entitateen sarea sendotzeko eta bultzatzeko plana 	

